

# BALIO PROPOSAMEN



## **Gaurko egungo diagnostikoa**

Gaur egun sexu-asistentearen figura existitzen da baina ez dago leku guztietan bermatuta.

Hiri handietan ematen da gehiago eta atzean ere tabu bat topatu dezakegu. Informazioa arakatzen, akonpainamendu intimo eta erotikoaren figura agertu da, aurreko figurari jarraituz edota aberastuz.



Gizartean oso presente dago sexuaren gaia eta informazioa asko lortu daiteke interneten, batez ere pornografia. Hala ere, pornografia komertziala ez da hezitzailea izaten eta estereotipo, zalantza eta inseguritateak sortu ohi ditu.

**Aniztasun funtzionala ez da kontuan hartzen honetan ere eta sexu-hezkuntza eta praktika-aukera falta nabaria topatu dugu.** Aurreiritzi eta beldur asko daude eta gizarteak ez ditu beharrezko baldintzak eskaintzen jarrera aldatzeko.

Topatu ditugun zenbait eredu, sexu-asistentearen figura eta aniztasun funtzionala dutenen artean egindako praktikak dira, dokumental moduan erakutsi dutenak. Adibidez, "Yes, we fuck" asistentzia sexualaren proiektua da. Beraz, figura hau aberasteko gure proposamena azalduko dugu, dauden beharrak asetzeko nahian.

